

# BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALA

berria || 2013ko abenduaren 17a, asteartea

«Zerutik begira daude Joxe eta Manuel Mari ziega zulotik entzuten beste euskaldun ugari muxu bat Iparraldeko bertso eskolako haurrari lagundu nauten guztiak Olatz eta arreba bi baina ni ez bainaiz hemen neuk sortu hutsean ari aitarena den txapel hau eskeintzen diot amari haurra nintzela euskaraz erakutsi zidanari»



Ametz Arzallus, txapela eskuan eta azken agurra kantatzeko prest. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

## 02 Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala



JON URBE / ARGAZKI PRESS

# Amets Arzallus

## «Jadanik ez nau hainbeste ikaratzen txapelaren figura huts horrek»

Oraindik ere motorra baretu gabe, errimatuz zetozkion hitzak Amets Arzallus bertsolari txapeldunari biharamunean. Gauetik goizera, bere ibilbidean larunbatean bezala sentitzen zen, igandean «mugarritxo polit bat» jarrita.

**Beñat Zamalloa Akizu** Hendaia

Amari eskaini zion txiki-txikitatik bertso eskolara eskutik eramanean zuten aitaren txapela, txapeldunaren agurrean. Modu horretara, hizkuntza transmititu izana eskertu zion amari Amets Arzallus bertsolari txapeldunak (Hendaia, 1983). Aurreko astean egunkari honetan eginiko elkarrizke-

tan, esan zuten txapela «berezi ki egun horretan» eguzkiak «bete-bete» jotzen zuten «gailurra» zela.

**Q Espero bezalakoa izan zen gailurra?**

**E** Beroa da, baina batez ere ingurukoentzat da beroa. Neure barruan, oso lasai nengo. Txapelaren izendapenerako eta txapela jasotzeko momentu horretan,

hoztasunetik atera gabe nengo. Orduan, ez zitzaidan iristen berotasun osoa.

**Q Ez zenuke nahi beroagoa izate-rik?**

**E** Neurri batean, bai. Baina ez duzu erabakitzen nola egon, eta pasatu eta gero alferrik da erabakitzea. Kontziente nintzen neurri batean. Maialeni [Lujanbio] gero aipatu nion pena apur bat ema-

ten zidala barruan zirrara hori lehertu ez izanak, baina segur aski ezinezkoa zen. Zirrara hori lehertu izan balitzait, ez niokeen momentu hori eutsiko, eta agurra kantatu behar duzu. Kontziente nintzen gehien agertuko zen bertsoa abestera nindoala. Hantxe huts egitea edo hantxe narrastea ez litzateke polita txapelketaren bukaera gisa eta norbere txapelketako bidearen bukaera gisa. Orduan, pena da, baina, beharbada, ez dauka beste erremediorik, edo ez daukat beste erremediorik. Horrela bizi izan nuen momentu hori. Hori da nire bertutea, eta nire gabezia ere bai.

**Q Bimotordituzu, beraz?**

**E** Ez dakit. Batzuetan bakarra

eta nahiko katarrotua sentitzen dut, baina motor bat hotz samarra eduki dut txapelketan. Hotz edo oso tenple lasaiduna. Momentuko zirrara hori bizi nuen, baina, gero, oso barruko begitik begiratzeko nion, eta nire barruko begia hitzetara zuzendua zegoen oso. Horri begira egon nintzen denbora guztian.

**Q Agurrean, puntuz puntu txalotu zintuzten...**

**E** Kantatzen ere kosta zitzaidan pixka bat. Beldur nintzen ea bukaerara hitzak bolumenik gabe iritsiko ote ziren. Egia esan, momentu oso polita da, eta ez da erretolika luzeetarako momentua, baina esan nahi dituzun horiek ahalik eta modu finenean esan



**Q Txapelak zuzan zein karga hartzea nahiko zenuke?**

**E** Zaila da kalkulatzeko zein karga dakarren kargu honek. Saioa guztiz ahalegin pertsonal baten kontzentrazio osoan egin nuen, baina oso lagun giro eta kolektibitate zoragarrian bizirik izan nuen. Uste dut txapela gutxi gorabehera denona dela. Egingo dut ahalegin berezia txapela ahalik eta ongien eramateko, baina, txapelarako bidean besteengandik lagundua sentitu nintzen moduan, txapela eramateko bidean ere ez dut dudarik egiten laguntza, babes eta inguru hori emango didatela gainontzekoek. Txapela hemen dago, baina denek josia da. Nik aurreko patxadarekin segitu nahi nuke.

**Q Txapela belaualdiz aldatu da?**

**E** Nahiko egoera berezia da gurea. Aurreko belaualdiaren taldetasuna nabarmena da. Hor badaude urte batzuk, non bertsolaritzaren uztak oso maila handia eman zuen. Ni, adinez, Beñatengandik [Gaztelumendi] gertuago nago Maialenengandik baino, baina, ibileraz, bertsoak eskaintako bidez, azken urteetako plazaz eta partekatutako orduz, ni belaualdi horren parte naiz, nolabait. Parte pribilegiaduna da. Horiek denak abiatuta zeuden gu iristerako, eta, iritsi ginenean, horien denen eskua eta aurrekoena, jaso nuen. Nire benetako unibertsitate lagun arte hori izan da. Horien arteko belaualdira geroxeago txertatutako ikasle eta lagun pribilegiaduna izan naiz.

**Q Aurreko astean, eguzkiak bete-betean jotzen duen gailur honetan, urteko sasoi batzuetan hotza ere egingo duela aurrekisten zenuen. Sasoiaren beldurrik baduzu?**

**E** Txapelak badu plazetan nola baitaiteko exijentzia puntu edo ardua bat. Ez nau askorik ikaritzen, lehenagotik ere saiatzeko nintzelako autoexijentziarekin

*«Txapela hemen dago, baina denek josia da. Nik segi nahi nuke aurreko patxadarekin»*

*«Airosa samar zabiltzanean, sentitu egiten duzu hitzak lasai dantzatzeko direla»*

plaza bakoitza zegokion seriotasunarekin hartzen. Plaza bakoitzari bere neurria eta bere ahalegina zor zaio. Lehen hartzen nuen baino serioago hartzea posible baldin bada, saiatuko naiz, baina nik, lehenago ere, neure burua eta neure bilaketa ahalik eta zorrotzen eramaten nuen

joandako leku bakoitzean. Lehen ere nahiko eroriz ibili izan naiz aurrera egin dudanean, eta pentsatzen dut orain ere erori gabe ez naizela ibiliko.

**Q Esperientziak eman dizkizu finaletan izan zenuen lasaitasuna eta tentsioa?**

**E** Aurten 30 urte bete ditut, eta sentitu dut pixka bat aldaketa. Beste urte batzuetan eta txapelketa batzuetan, amorratuago ibiltzen nintzen atera nahi eta atera ezinaren artean, eta, batzuetan, pixka bat gehixeago itsutuz, estutuz. Aurten atera behar bazuen aterako zen, eta atera behar ez baldin bazuen ez zen aterako, baina nahiko lasai bizi nuen momentua. Nerbioa eta txispa hori nahi nuen, baina oso patxada handiz agertu naiz neure buruz txapelketako plazara. Lan dezente egiten duzu egun horietara ahalik eta ongien iristeko. Atera nahi nuena atera zen, eta ateratzen ari zen heinean, gainera, patxada irabazten nuen.

**Q Egindako lanaz gustura agertu zinen ondoren, baina, azken kartzela bukatuta itzultzean, antzematen zen ezzeundela oso gustura...**

**E** Intentsitate psikologiko bat behar duzu ariketa bakoitzeko. Gustura sentitzen ari zarenean, arriskua duzu pixka bat erlaxatzeko. Ariketa mental bikoitza egin behar izan nuen aldi oro, neure buruari akuilua pixka bat sartzeko, eta berriz ere ahalegin guztia jartzeko hurrengo ariketan. Banekien zaila zela arratsaldean ildo horretan segitzea. Luze egiten hasi zitzaidan; bereziki, mentalki. Sentitu nuen kargak zapaltzen ninduela pixka bat, eta indarrrik gabe gelditzen ari zela nire psikologia hori; beharrezkoa dena bertso bakoitzari aurre egiteko. Bertso bat sortu aurretik, bada penkatsamenduen putzu bat, sentimenduen putzu bat, eta handik arrantzatzen duzu esanahi bat. Hori forma bat ematen diozu, eta bota egiten duzu, baina, bide horretan, ezarrian, azkenean, galbahe bat dago. Galbahe horrek alantzearen zentzua eta estuago izan, ura finago pasatzen da, zakar gutxiago dakar. Arratsaldean, sentitzen ari nintzen ezarriko galbahe hori gero eta alantze lasagoekin zebilela.

**Q Zenbateraino aritu zinen darizunetik, eta zenbateraino dagizunetik?**

**E** Nik uste dut bien arteko oreka nahiko ona izan zela. Goizean, nahiko erraz sentitu nuen neure burua, eta dagidanetik egiten nuen. Ume-umetatik bertso eskolan bidean sartu ninduten. Airosa samar zabiltzanean, sentitu egiten duzu hitzak lasai dantzatzeko ari direla. Nahi izaten diot buelta bat eman berez egingo luketenari. Arratsaldeko bakarkakoa edo kartzelakoa gehiago izan zen zeridanetik.

Egin nahi nuenerako, ez nuen hainbesterako indarririk. Goizeko bakarkakoa, aldiz, uste dut neuk behartu nituela. Utzi banion isurtzen berez daridan erreka horri, beharbada, torturazailaren papera hartuko nuen. Gordin samar begiratuko nion hari, eta hor bertsoak lodi samar bukatu. Lehenak bukaera poetikoa samarra zuen; bigarrenak, berriz, bukaera apal samarra... Hori ez dut uste niri daridana denik. Hori ahaleginez egindakoa da. Kontzientzia bat hartu, distantzia bat hartu nire bertsoarekiko.

**Q Politika egiteko aukera baliatu behar da BECen?**

**E** Bakoitzak sentitzen duen hartatik kantatzeko aukera baliatu behar du. Goizeko kartzelan, gaia entzun eta segidan, «beste alde» horrek nire baitan beste bando baten oihartzuna sortu zuen. Politika eta gatazkara erortzen zitzaidan. Neure bizitzaren eta kezka munduaren inertziak, haraxe erori nintzen, eta hor ikusi nuen nire ahotsa momentu horretan. Euskal gatazka agertu zen espektro aski desberdinetan. Ez dut esango gure bertsoa erabili behar denik hor politika egiteko, ezta gutxiagorik ere, baina sentitzen baldin badu norberak eta ateratzen baldin bazaio barrutik, bizidzekoa da.

**Q Eraginkorra izan litekeela uste duzu?**

**E** Izan liteke. Bertsoa zeure barrutik sortzen da, eta saiatzen zara beste baten barrura irits dadin. Azkenean, barrura heldu zaion bertso baten erantzuna eskaintzen du jendeak txaloaren berotasun horretan. Barrura iritsi zaion hari barruan buelta batzuk ematen dizkio, beharbada. Batzuei ahaztu egingo zaizkie; beste batzuei geratu egingo zaizkie gehiegi pentsatu gabe, eta beste batzuek pentsagai izango dituzte zuk kantatutako bertsoak. Hori da, nik uste, lor daitekeen txapelik ederrena: beste norbaiten barrura sartu, eta han kilimak, azkurak eta mintxoak eragitea.

**Q Aurreko finalaren ostean ez zinen lan egon idatzitako zenuen. Han egon zinen?**

**E** Bai, noski. Badut hanka bat finalezan izan nuen irudipena, eta badut irudipena azken hilabeteotan etxean bertsoa landu nahian ibili naizen txoko hartan neukala beste hanka. Gainera, irudikatutako egiten nuen nire lanerako mahai hartan sentitzen nuen hanka bat. Beharbada, horregatik atera zitzaidan horrelako saioa. Momentu oro, jakinaren gainean nengoen hanka bat falta zitzaizkidan finaletik, baina bi hankak izango banitu han, gehiegi eramango ninduen momentuko berotasun hark. Jendeak zirrara handia transmititzen ditu. Bi hankak

han banitu, izugarri galduko nuen lehen esandako galbahe horren tinkotasuna.

**Q Txapeldun aldakorren garai batean egon gintezkeela iruditzen zaizu?**

**E** Jendeak pentsa lezake galtzeko beldurra dudala, eta ez dut esango txapela galtzeko irrika daukadunik, noski, baina, inguruko kantulagunak ikusita, garai aldakor horren edertasuna sentitzen dut lehenago gentozen dinastia luze samar batetik. Maialek dinastia hori tronutik kendu zuen duela lau urte, eta atzo bestela gertatu ziren gauzak. Garai aldakor hori ez da ez beldur, ez gerta ez dadin nahi nukkeen gauza

*«Lehen hartzen nuen baino serioago hartzea posible baldin bada, saiatuko naiz»*

*«Txapelik ederrena da beste norbaiten barrura sartu, eta kilimak, azkurak eta mintxoak eragitea»*

bat. Alderantziz, iruditzen zait garai polita dela, baina ni saiatuko naiz beste inork erraz izan ez dezan.

**Q Txapelak zein ondorio erreal ekar liteaieke Lapurdi, Zuberoa eta Beha Nafarroari?**

**E** Uste dut bi alde izan ditzakeela eraginaren aldetik: eragin diezaioke, neurri batean, Iparraldeari, eta eragin diezaioke, neurri batean, Hegoaldeari. Hemen, bertso eskolek badaramate lan bat; sekulako ahalegina egiten ari dira hizkuntza berreskuratzeko, eta baita transmisioaren kateak ez daitezke azkenerraino eten ere. Hemengo herrigintzak egunero martxa sufrutu bat darama. Txapelak eragiten baldin badu hizkuntzaren arnasa pixka bat hauspotu dadin, eta, hizkuntzaren hauspotzen duen neurrian, bertso eskolan haurrak zabal daitezkeen beste ilusio batez eta kopuru handiagoan, niretzat zoragarria litzateke. Niretzat, oinarritzeko da Iparraldeko bertso eskoletan egiten den lana; batez ere, euskararen ikuspegitik. Ikusten dut bertso eskolak direla etorkizuneko hizkuntzaren kontzientzia eta kalitatea lantzen diren baratzak. Txapelak lagun lezakeela baratz hori ongarrizten? Nire ongari guztia isuriko dut hor. Hegoaldeari begira, euskararen eta bertsoaren ikuspegitik, balio baldin badu agerriago egiteko batzuetan ahantzirik gelditzen den gure herriko mapa honen alde hau, ongi etorria izan dadila.

nahi dituzu, eta baneuzkan esan nahi batzuk. Aldi berean, simpletasun bat bilatzen duzu bertsoan. Ariketa zaila da hori dena ariketa bakarrean egitea. Puntuz puntu txalotzen joan ziren, eta txalo horien gainean joan nintzen hitzak eransten.

**Q Geratu ere egin zinen...**

**E** Ziega zuloetan entzuten egongo ziren horien aipamena egitean, txaloa ozendu egin zen, eta hori inportantea zen, baina hori bezain inportantea zen niretzat bertso eskoletara eta zehazki Iparraldeko bertso eskoletako ikasleengan zuzentzea. Ez nuen nahi hori isil zezan aurrekoaren txalo bolumenak.

**Q Uste duzu aste honetan pasatuko dela txapela janzteki gutxien erakartzen zaituena?**

**E** Bai, pentsatzen dut egun honekin eta biharkoekin pasatuz joango dela. Saioa joan zen bezala, jadanik ez nau hainbeste ikaritzen txapelaren figura huts horrek. Txapela neure bidean bete samartua ikusten dut. Une hartan, ikaratu egiten ninduen neure bideetan ibili gabe bestelako gailur baten bila ibiltzeak, eta hori zen erakartzen ez ninduen. Atzo eguna joan zen moduan, ikara hori erantzia dut, eta ahanztzia ere bai.

## 04 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala



Lujanbio, Mendiluze, Colina, Arzallus, Elortza, Sarriegi, Gaztelumendi eta Iturriaga, finalean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

# Aurrekoa, alderantziz

Berriz ere buruz burukoan elkartu ziren igandean, baina Arzallusek goizetik hartua zion neurria. Lujanbio txapelaldun ohiari kosta egin zitzaion.

**Beñat Zamalloa** Barakaldo

**D**uela lau urte Maialen Lujanbio izan zen goizeko lehen ariketan Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalari neurria hartu ziona. Amets Arzallusek aurrerago hartu zuen abaila, eta gero goigoian bukatu. Igandean, ostera, Arzallus izan zen zortziko handian saioari neurria hartuta finalari tonua hartu eta tonu egokiari eutsi ziona. Lujanbiok galbahe-

tik artez pasatzen zituen gaiak, baina ohiko fintasuna falta izan zuen goitik beherakoan. Buruz burukoan elkartu ziren biak berriz herenegungoan, Lujanbio txapelaldun zela. Zortziko txikiaren euren bikotekideen ahotik txapelaldunaz apustuan umoretsu jardun eta gero, ez zuten 2009an bezalako surik sortu *altzoa* hitzarekin. Lujanbiok Arzallusi aurrea har ziezaiokeela irudi zezakeen buruz burukoan hitzarekin eta kartzelakoaren hasierarekin. Irudipenak irudipen, ordu-

rako alde zabalegia zuen Arzallusek.

Goizeko kartzelakoan sumatu zen bere puntuan Lujanbio. Doinu berrian, 13.500 bertsozaleengana zurrara sortu zuen; saioko unerik berezietako bat izan zen. Orduan jo zuen finaleko gailurre-tako bat Arzallusek berak ere.

«Egoerak beste aldean jarri zaitu», aurkeztu zien kartzelako gaia Saroi Jauregik eguerdian. Euskal gatazkaren hiru aurpegi izan ziren kartzelako lanetan, eta Arzallusena izan zen horietako bat. «Ta azkenean, Donostiako / koartelera heldu nintzen / eta ordutik lana egin dut / Intxaurrendoa kasintzen», kokatu zuen kontakizuna Arzallus *guardia zibil torturatzailerak*. «Galdetzen nien: 'Hik ez ote duk / hil guardia zibilik? / Eta hil baduk, zer sentitu duk / neure lankide bat hilik?' / Galdera hauei

erantzun arte / hor egongo haiz txintxilik / baina begiak zarratu eta / segitzen zuten ixilik», jarraitu zuen Arzallusek finalaurrekoetan plazaratutako doinuarekin. Orain bera zen epaitua, baina indultatzeko esperantzarekin bukatu zuen bertsoaldia. Hiru bertsoetan zehar garatu zuen gaia.

Lujanbiok lehen bertsoaren bukaeran zentratu zuen egoera puntu bakarrean: «Nik utzi izan det, baina / gaur, aldiz, naute». Hala bukatu zuen: «Eta esan gabe doa / ze eskubide daukazun / opa dizut zoriona / aski desio maitasun. / Nere lore gozo zena / nahiz bihurtu zaidan asun / ezin zaitut derrigortu / zuk ni maitatu nazazun».

Lujanbiok Igor Elortzarekin egindako arratsaldeko hamarretoko txikiko ofizioan sortu zuen beste une berezietako bat. «Igor aurtobusean doala Maialen bere on-

dokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini dio Igo-rrek», aurkeztu zien gaia Zuriñe Iarrituk; informazio ugari gaia. Azken bertsoan harrapatu zituen ezustean Lujanbiok Elortzaren babesa jaso ondotik: «Telefonoz nenbilen / eztarria idor / zuk entzutea behar / bainuen derrigor / telefonoz bestalde / ez zegoen inor».

Buruz burukoan kantatzetik urrun gabe sailkatu zen hirugarren postuan Elortza. Bakarka egindakoetan erakutsi zuen dotoretasuna eta fintasuna; batez ere, arratsaldekoan. Ez zitzaion bakarkakoetako gai ezohiko eta zehaztuetariko bat egokitu; irekietako bat baizik: «Lehen aldiz lo-kartu da zure besoetan». Gertuan

## Iritziak



«Ez naiz oso bertsozalea, baina finala gauza handi bat iruditzen zait»

### Fermin Etxegoien

Idazlea eta kazetaria

«Ez naiz inoiz oso bertsozalea izan, baina finala ikusten dut, eta arrazo askorengatik iruditzen zait gauza handi bat dela. Arzallusi elkarriketa egin zioten bukatu eta segituan, eta esaten zuen hizkuntzaren bizinahia dela finalean denok biltzen gaituena».




«Sortzen den mugimendua ez da pose bat, benetakoa baizik»

### Aizpea Goenaga

Etxepare Institutuko zuzendaria

«Jendetzaren energia nabarmenduko nuke. Bertsolaritzaren bueltan sortzen den mugimendua harrigarria da, eta ez da pose bat, benetakoa baizik. Zortzi bertsolarien maila, gainera, akatsik gabea izan zen. Semeak esan dit hurrengo fitzalera joan nahi duela!».



«Lujanbio hegan ikusi nuen, eta Arzallus, oso maisu baina oso topiko»

### Lorea Agirre

Kazetaria

«Saioa oso-oso ona izan zen. Buruz burukoan bi eredu ikusi genituen. Lujanbio hegan: ber-ritzen, sortzen, ematen. Arzallus, oso maisu, baina fiabardurarik gabe, oso topiko. Agian nabarmen aldeko zuen publikoak jarri zizkion kateak. Arzallus hori baino gehiago da».




«Perfekzioaren izenean, beste bertsoakera batzuk alboratzen dira»

### Hasier Etxeberria

Kazetaria

«Zortzi finalistek duten maila gimnastiko bikaina nabarmenduko nuke. Baina perfekzioaren izenean albo batera uzten dira beste abilezia eta bertsoakera batzuk. Gainera, ez dakit perfekzioaren bilaketa horrek ez ote dion kontakizunari berari kalte egiten».



«Lujanbio errazkeria saihesten ahalegindu zen buruz burukoan»

### Beñat Sarasola

Idazlea

«Lujanbioren buruz burukoa nabarmenduko nuke, epatatzeke joera eta errazkeria saihesteko eginahalean. Elortza eta Mendiluzeren puntutako aparta ere aipatu nahi nuke. I+G+B-ean beste diziplinekiko aurrerago dagoela frogatu zuen berriro bertsolariak».


↓ **Bertsolari Txapelketa Nagusia**

<b>1</b> Amets Arzallus 1.737,5	<b>2</b> Maialen Lujanbio 1.686,5	<b>3</b> Igor Elortza 1.164	<b>4</b> Aitor Mendiluze 1.155
<b>5</b> Aitor Sarriegi 1.106	<b>6</b> Beñat Gaztelumendi 1.099	<b>7</b> Unai Iturriaga 1.099	<b>8</b> Sustrai Colina 1.082,5

Goizeko saioa	8H	8T	PE	6M	K	Guztira
Amets Arzallus	151	154	156,5	145,5	160	<b>767</b>
Maialen Lujanbio	143	147,5	143	142	157,5	<b>733</b>
Igor Elortza	135,5	143	144	141	148	<b>711,5</b>
Aitor Mendiluze	138,5	136,5	131,5	155,5	134	<b>696</b>
Aitor Sarriegi	134,5	125	146	131,5	144	<b>681</b>
Beñat Gaztelumendi	138,5	135	126,5	137,5	143	<b>680,5</b>
Unai Iturriaga	141	135,5	127,5	148	126	<b>678</b>
Sustrai Colina	139,5	129	135,5	134,5	134	<b>672,5</b>

Arratsaldeko saioa	10T	P	GE	Guztira	BB
Aitor Mendiluze	140,5	165	153,5	<b>459</b>	
Igor Elortza	143,5	156	153	<b>452,5</b>	
Maialen Lujanbio	145,5	141,5	151	<b>438</b>	<b>515,5</b>
Amets Arzallus	149,5	134,5	152	<b>436</b>	<b>534,5</b>
Aitor Sarriegi	135,5	136,5	153	<b>425</b>	
Unai Iturriaga	138,5	131	151,5	<b>421</b>	
Beñat Gaztelumendi	137	130	151,5	<b>418,5</b>	
Sustrai Colina	137	140	133	<b>410</b>	

8H: Zortziko handia / 8T: Zortziko txikia / PE: Puntua emanda / 6M: Sei puntuko motza / K: Kartzela / 10T: Hamarreko txikia / P: Puntutan / GE: Bakarka gaia emanda / BB: Buruz-burukoa



ITURRIA: BERTSOZALE ELKARTEA



Bertsolariek eta publikoak bat egin zuten txaloetan. LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

topatu zuen bidea, aitatasunaren ikuspuntutik. Donostian plazazartutako doinuak kantatu zuen. «Neu ere berriz jaio naiz / zure lehen segunduan / orain lotan zauz kadala / zer daukadan akorduan / musukatzeko orduan: / beti ezin go zaitudala / babestu gaurko moduan», kantatu zuen bigarrenen. «Nolanahi lehen une hau / denontzat ederra oso / zu, ama eta ni gozo / aulki deseroso hontan / neuk egingo dut loeros», borobilduko zuen.

Bertsolariek bakarkakoetan utzi zuten euren sinaduratik gehien, eta horrek saioan gai seriodun lanek pisua hartzea eragin zuen. Umorezkoen artean izan zen Elortza eta Mendiluzerena. Egin beharrekorik bat-batekoen artean lortu zuen Mendiluzek txapelketa guztiko puntuaketakirik altuena. Ofizioetan nabarmendu zen Mendiluze, eta arratsaldeko saioa indartsu itzuli zen. «Olentzero eta Aita Noel dira: Aitor, Olentzero, eta Igor, Aita Noel. Tximiniatik sartu ezinik dabilta», egokituz zitzaizen gaia Elortza eta Mendiluzeri. Bera estatubatuarra zela harrokeriaz kantatzera iritsi zen

Elortza. «Kontuz nirekin daude CIA eta NASA», bota zion Elortzak une batean, eta era honetara erantzun zion Mendiluzek: «Hala ere, sartzeko / ez zara kapaza».

Bakarkakoak izan ziren Aitor Sarriegiren bereizgarrienak. Bosgarren, aurrekoengandik koska batera. Gatazka politikoaren alde bana izan zituen gai: goizean, berak hala hautaturik; eta arratsaldean, gaiak hala markaturik. Goizekoan, kartzelan, «Alargunari» eskua emandako unean «zerbait lehertu» eta geroko sentimendua azaldu zuen bertsoaldiaren erdian: «Ez da izan eroso / ez da izan atsegina / nik ere badakit zer den / sufrimendu ta ezina / baina egin beharran / besterik gabe muzina / orain nere sentitu det / eragin diodan mina». Arratsaldeko bakarkako gaian posizio honetan jarri zuen: «Alabarekin batera bikotekidea bisitatzera zoaz autoan. Alabak hala esan dizu berriz: 'Asko falta da iristeko'». Aldea bazen, Elortzaren gaitik Sarriegirenara, adibiderako. Ideia distiratsuen lehen bertsoaren azkenean bota zuen: «Alaba asko falta den / galdetzen didazu neri / erantzunik

emangabe / ezin det gidatzen segi: / 'Kilometrotan ez asko / eta denboran gehiegi'».

Gatazkaren beste aldeko egokituz zitzaion Iturriagari: «Zure aita atentatu batean hil zuten. Aurtten, lehen aldiz, sentsibilitate politiko guztietako ordezkariak izan dira aitaren omenaldian». «Utzi ditzagun iraganak / diskurtsoak ta ostiak / biktimak, gora-gorakak / ta gerrako abestiak. / Aita gabe umezurtz naiz / dauzkat begiak bustiak / baina herri honek behar ditu / aita ta ama guztiak», bukatuko zuen bere azken finaleko azken betebeharrekoa. Bakarkako gai serio hori finena izan arren, freskotasuna izan zen ekarpena.

Estreinakoa finala zen Beñat Gaztelumendirentzat. Finalik orekatuenetakoa egin zuen. Adimenezko urritasuna duten gazteekin osatutako ballet arduradun gisa osatu zuen bere bertsoaldirik osoena, finalaren azkenean. Sustrai Colina zortzigarrenak gaiekin ez zuen zorte handirik izan. Kartzelako garapenean ere ez zuen asmatu. Ezin izan zuen txapelketan ordura arte erakutsitako mailarik erakutsi.

• IGOR SUSAETA



«Parean ikusten nituen, eta uste nuen Lujanbiok irabaziko zuela»

**Itziar Ituño**  
Aktorea

«Oso hunkigarria izan zen; batez ere arratsaldekoa. Buruz buruko negar batean bukatu nuen. Txapelketak baino, beselako saioak nahiago ditut, baina finalean asko gozatu nuen. Pentsatzen nuen Lujanbiok irabaziko zuela... Parean ikusten nituen biak...».



«Bertsozale Elkarteak egindako lanaren isla da BECeko argazkia»

**Mikel Astarloza**  
Txirindulari ohia

«Azken urteotan Bertsozale Elkarteak egindako lan bikainen emaitza da BECen 13.500 lagun biltzea eta halako giroa sortzea. Gozamen hutsa izan zen finala: hasi lehen aletik eta azkeneko aleraino. Arzallusek merezimendu osoz jantzi zuen txapela».



«Lujanbiorekin gozatu nuen, baina merezitako tokian dago txapela»

**Onintza Enbeita**  
Bertsolaria eta politikaria

«Kristoren finala izan zela iruditzen zait; sentsazio hori daukat. Agian, orain ez ditugu baloratzeko, baina konturatuko gara Iturriagaren bakarkakoa eta Sarriegiren kartzelakoa bertso itzelak izan zirela. Lujanbiorekin gozatu nuen, baina merezitako tokian dago txapela».



«Egungo bertsokera narratibistarekin ez da erraza umorea egitea»

**Xabier Aierdi**  
Soziologoa eta irakaslea

«Finala, oro har, oso ona izan zen. Buruz burukoan Lujanbiok sakonago kantatu zuela esango nuke. Gaiak ikuspegi soziotuzentriko batetik aztertuz gero, oso arazotsuak izan ziren. Egungo bertsokera narratibista kontuan hartuta, igual ez da erraza umorea egitea».



«Umora gutxi eduki zuela entzun dut; hor dago gogoetarako gaia»

**Ainhoa Agirreazaldegia**  
Bertsolaria

«Maila oso oneko bertsoak aditu genituen. Arzallusek goizeko lana eta barrua iristen diren Lujanbioren ideia konplexuak nabarmenduko nituzke. Umora gutxiokoa finala izan zela entzun dut. Hor dago gogoetarako gaia. Hain saio luzean eskerterekin dira umore dosiak».

## 06 Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala

### GOIZEKOA

#### Zortziko handia

##### S. Colina-A. Arzallus

→ Gaia: Azken urteotan alkoholiko anonimoetan ibili dira elkarrekin. Gaur, taberna batera sartu dira kafe bana hartzera.

##### Sustrai Colina

Nahiz ta lehenago ipintzen nion itukinari partexa gogorra bezain ederra izan da urte hauen balantzea ez da samurra tabernan sartu ta kafe bat goxatzea oraindik ere kostatzen zait ardo bat ez eskatzea.

##### Amets Arzallus

Neronek ere pentsatu dut bai egingen ote dut galde ardo patxaran eta whiskyak begi bistan alde alde barra hori da amildegi bat ta gu bere bi maiale hemen orekan baldin bagabiltz sendatu garen seinale.

##### Sustrai Colina

Tabernan sartu ta ausartu naiz ni ebaki baten eske laguntasuna izanik gure lotura ta zilborheste baina erabat sendatu garen enuke esanen hainbeste nahiz ta bidean aurrera joan noiznahi erori gaitzke.

##### Amets Arzallus

Arrazoi duzu arrisksua da guretzat hemengo amildegitik gerturatzean tentsio *in crescendo* baina hala ere ni sentitzen naiz sendatua ta sendoa guk bi ebaki izanagatik zauria osatzen doa.

##### Sustrai Colina

Hori litzake sinestu nahia eta ezin sinestua gogoan daukat anonimotan lehen gau hartan aurkeztua nik oraindik ez dadukadanez panorama amestua inoiz bidean erortzen banaiz luza zaidazu eskua.

##### Amets Arzallus

Emango dizut eskua eta osasun berri bat opa utzi ditzagun geure kontu zahar geure min ta geure kopia nahiz hortarako egokiago den askosaz ardo kopa hartu ditzagun kafe kikarak ta egin dezagun topa.

#### Zortziko txikia

##### A. Arzallus-M. Lujanbio

→ Gaia: Bikotea dira Amets eta Maialen. Maialenek jatetxe garesti batera gonbidatu zuen Amets afaltzera. Jaki batek kalte egin, eta ospitalean bukatu dute biek.

##### Amets Arzallus

Zugan ilusio bat joan zen gorpuzten Subijana ta Arzak atzez erakusten zenion zenbat izar Michelin dituzten ba orain ni ari naiz izarrik ikusten.

##### Maialen Lujanbio

Azken aldiari motel

geundela nabari eta nik Subijana jarri nuen adi saiatzen ari banaiz ari eta ari emozioa jartzen gure harremanari.

##### Amets Arzallus

Ez da erreza menua onddo papilloteko han zen eskribitzen kabiar ur ardotua horrekin segitzen irakurtze hutsarekin ni gaixotu nintzen.

##### Maialen Lujanbio

Porruak binagretan ta kokotxa batzu delikatesena zen egidazu kasu pure ta zai egosi zalea zara zu ba hori nahi bazendu hementxe daukazu.

##### Amets Arzallus

Glamour pixkat emanez piztu bi kandela jakizu okerrena baina zera dela etxerako hain nuen aurpegi zimela bate postrerik gabe gelditu ginela.

##### Maialen Lujanbio

Subijanako janak ze maila ze gradu postrerik ez zegola egin nintzen kargu baina ez dago koman itxura ona du beraz azken puntua urruti daukagu.

#### Lehen puntua emanda, zortziko txikian

→ Puntua: Lehengo astean zendu zen Nelson Mandela eta mundu guztian piztu da kandela gustorago nengoke hemen dena dela betiko itxi balute egon zen kartzela.

Puntua: Borroka egin zuen bakearen alde ta nola den posible etzaidazu galde hemen ere badabiliz makina bat talde baina haren ohorerik bate jaso gabe.

Puntua: Bakezaleak gara bakea nahi dugu ta horren izenean makina bat gudu munduko lau ertzetan piztu ohi ditugu bide zuzenaren denik ez nago seguru.

#### Sei puntuko motza

##### A. Mendiluze-A. Arzallus

→ Gaia: Aitorrek eta Ametssek beren seme-alaba nerabeak topatu dituzte, biluzik, elkarri argazkiak ateratzen. Aitor kezkatu ta dago; Ametssek ez dio aparteko garrantzirik ematen.

##### Aitor Mendiluze

Heziketa da lehena ta emateko kemena ahalegina ta konpromisoa da gurasoena baina jakinda hauena gaur egun gertatzen dena biluztea ez argazkia da kezkatzen nauena

##### Amets Arzallus

Argazki baten flash hutsa zorrotza da ez amutsa ai baina aitor bi gorputz hoiei emaez funtsa bi bular koxkor goruntza hanka tarreetan unta zer dauka txarra deskubritzeak besteen gorputza.

##### Aitor Mendiluze

Bi bular koxkorak hara bien artean konpara eta diozu deskubritzea hain txarra ai da ba ez baina iristen bada sare sozialetara denek ez dute izango agian zure begirada.

##### Amets Arzallus

Zabiltz bidetik irtena egin ezazu etena ez baita Aitor hainbestekoa seme alabena egin gabeko hobena ez ezazula kondena etzazu zuk zeuk imajinatu egin ez dutena.

##### Aitor Mendiluze

Zer pasa litekeen egun nahiz ta kontatu diegun agian errez delako edo kontzientiz bigun zergatik epaitzen jardun nola aukera daukagun eser gaitzen eurekin eta hitz egin dezagun.

##### Amets Arzallus

Ta gorputza goitik behera bi begien arabera azter dezagun ta gero egin hurrengo galdera zer sartu internetera edo eta zer atera geronek ere ikas dezagun eurekin batera.

#### Kartzelako lana

→ Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu. Andaluzian sortu nintzen ta Rodriguez hiru abizen ikasketetan nola enuekan aski argi ta aski sen

# Txapelaren bertsoak

Amets Arzallusek 35 bertso hauekin irabazi zuen txapela iragan igandean. Guztira hamabi ariketa egin behar izan zituen, bakarkako zein binakako jardunean, eta neurri desberdinetan.



Amets Arzallus azken agurra abesten, finalean parte hartu zuten beste bertsolarien aurrean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

urte ta han hasi nintzen merita serbitzen ioari paso eman ta atik gau izerditzen eanean Donostiako elera heldu nintzen idurtuki lana egin dut urrondoak astintzen.

izena gorroto duten kit zenbat familiar izango Euskal Herrian ez dudan mutilik etzen nien hik ez ote duk hil guardia zibilik a baduk zer sentitu duk e lankide bat hilik era hauei erantzun arte gongo haiz txintxilak eta begia zarratu eta tzen zuten ixilik.

Baina heldu da aro berria nunbait bukatu da gerla ene zain daude majistraduak eta auzitegi gela oi ordu dira hontaz ta hartaz izezka ari direla rain neu nago ixilik ta mutil haiek bezela uko zait itzal luzea pateko kartzela ta espero dut presidentek atutako nauela.

## ARRATSALDEKOAK

### marreko txikian

#### Arzallus-U. Iturriaga

Gaia: Amets psikiatra da. Unai pazienteak sei hilabete matza Ametsen erietxe psikoan. Gaur senda-agiria nahi izan dio Ametsek

Unairi, baina Unai esan dio oraindik goizegi dela.

#### Amets Arzallus

Nik gomendio eta hara zuk epaitu Unai zure gaitz horrek erro bat bai baitu badakit ez duzula sendatzen amaitu baina hemen ezin dut artatzen jarraitu orain kaleak berak osatuko zaitu.

#### Unai Iturriaga

Artazka joango zenik enuekan ustirik ia ez didazu eman sendatzeko astirik ni enaute konpontzen laguna pasti bik eta ez dut egon nahi munduak bustirik hor kanpoan ez dago erota besterik.

#### Amets Arzallus

Ai ene Unai maite ta hemen zer dago ba luzatzen baldin bada hemengo denbora zu gehiegi lotuko zara hemengora hemengo eskutara hemengo berora ta orduan sendatzen zailago izango da.

#### Unai Iturriaga

Sendatzen zaila dela neuk ere badakit baina sartu ezkerro hemengo atetik eduki dut berotik eta babesetik Unai esaten duzu batetik bestetik ta kanpoan eroa ken zaitte paretik.

#### Amets Arzallus

Esplikatuko dizut astiro astiro ja mamuek ez dute egin behar tiro gainera orain kanpoan dago goxo giro zoaz ahaztu beldur ta zure berritgo ta erortzen bazara etorri berriro.

#### Unai Iturriaga

Uste nun zenidala hainbeste maitasun hemen pasa ta gero mila estuasun zeu arriskatu zara zer egin didazun lepotik heldu dizut hatzak ditut asun hau egin behar al nuen maitatu nazazun.

### Zortziko txikian puntuka

**A. Arzallus - B. Gaztelumendi**  
Gaia: Kalean besarkadak doahinik emateko izena eman zenuten. Petoak jantzi eta besarkadak ematen hastera zoazte.

(A. A.) Ze bihotz zabal dudanez

dakizu jakin (B. G.) Besarkada askorik ez dute nerekin. (A. A.) Nik gehiago ematen dut beso luzeekin. (B. G.) Zu ikusita ohi zait odoloso irakin.

(B. G.) Nigana behintzat inor ez da inguratu. (A. A.) Ta zergatik ote den beharko da pentsatu. (B. G.) Akaso bikotea behar det aldatu. (A. A.) Hara hor alkatea zaigu arri-matu.

(A. A.) Nik ez diot emango zuk eman zaitzazu. (B. G.) Etxe jantzi askok nigan zaitoz zu. (A. A.) Beste politik bat hortxe ere aizu. (B. G.) Hari igual bi eman behar dizkiotzu.

(B. G.) Zure ondoan nago disimulatua. (A. A.) Baina besarkada da gauza sakratua. (B. G.) Zu hain tipo serioa hain tipo altua. (A. A.) Zuk egizu irripar madarikatua.

(A. A.) Ta bat emango dugu gubion artean. (B. G.) Norbai etorri dadin halako batean. (A. A.) Besteei emateko entrena gaitaen. (B. G.) Guretzat inork ezer ez dun bitartean.

(B. G.) Egin beharko degu elkarrekin frogat. (A. A.) Baina altura pixkat adostu beharko da. (B. G.) Nik jaso gabe pasa det nahiko denbora. (A. A.) Nik eskuak burura eta zuk lepora.

(A. A.) Tira ez da gaizki irten lehen ahalegina. (B. G.) Bigarrenez egingo al degu berdina? (A. A.) Bai, pixkat kilimatu zait bihotziskina. (B. G.) Ai, antzekoagoak etorri bagina.

(B. G.) Beraz saia gaitezen petoa kenduta. (A. A.) Ez elkarren ondokit hala al-denduta. (B. G.) Gurea ez da oso langintza arrunta. (A. A.) Tori muxu bat ere nik maite zaitut ta!

### Bakarka

→ Gaia: Honela esan dizu: ezin naiz zu gabe bizi.

Bihotza ez da enbor bat bezala bitan puskatzen eta maite diren haiek berez direnez uztartzen sei urte daramatzagu biok elkar muxukatzen

eta orain distantzia pixka bat hartzera goazen ez diot lehengo begiok etzazkidanik gustatzen maite nauzu galdetuta nik ez diut ezetzatzen eztaite hasi negarrez eta larregi kezkatzen denbora pixka bat nahi dut ez dut besterik eskatzen.

Etzazu negarrik egin eskatzen dizut faborez ta gure fase berri hau hartu dezagun adorez bakoitza bere pausotan ta bakoitza bere moldez maitasuna bizitzen du edonorek bere kodez ez malkorikan ixuri egin irripar bat ordez ezin naiz bizi zu gabe diozu begiak gordez ni bizi naitekeen edo jakin nahi dut umorez laister erantzungo dizut bizi nitekeen edo ez.

Beharbada kopatuak gaitu rutina zorrotzak edo otso bat ari da zorrotzuz nere hortzak nik oraindik maite ditut zeure pausoxoen hotsak ta zure beharra daukat batzutan banago hotzak baina gure lehengo penak eta gure lehengo pozak lasai egon ez baititu kolpez hartu heriotzak nola artaldetik bereiz joaten diren bildotsak har dezagun tarte bat ta hitz egin beza bihotzak.

## BURUZ-BURUKOA

### Sei puntuko motzean

#### A. Arzallus - M. Lujanbio

→ Gaia: Bi pailazo zarete. Arratsaldea gaixo dauden haurrekin pasatu ondoren, ospitaletik ateratzera zoazte.

#### Amets Arzallus

Gaitz latzenen atzaparra bizitza zaildu samarra baina kanpora ateratzean hau barne indarra nahiz eta egin nigarra errekan beheira ibarra bihotzeraino aliegatu zait euren irribarra.

#### Maialen Lujanbio

Bizitzaren mendekua jolasteko debekua zu indartuta ni berriz nago gogo gabetuaa zenbat kasu aletua barrua daukat lehertua eskerrak sudur gorria nuen ezkutalekua.

#### Amets Arzallus

Zure sudurtxo atzea ezkutuko ohantzea nik sufritu dut baina ai zer den hala gozatzea ederra da jostatzea eta poza ospatzea

baina askoz ederrago da minak goxatzea.

#### Maialen Lujanbio

Azal mamiz eskastuta buru gainak babestuta solduta eta hainbeste aje ta hainbeste gastuta ni ia nengon ahaztuta bereaiekin jolastuta parrea ere parre ote da minekin nahastuta.

#### Amets Arzallus

Hala izaten da sarri gozamina edergarri baina gaitz horrek zita edonori lezaioke jarri ni inoiz banago larri ta esperantzaz elbarri sudur gorria jantzi zazu ta bisitan etorri.

#### Maialen Lujanbio

Etorkizuneko aipu horiekin ez jarraitu gaixo ez zaitut ikusi nahi ta horrekin amaitu guk barrun indarrak ahitu atera eta lasaitu baina orain zu ta biok zeinek alaituko gaitu.

### Zortziko txikia

→ Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusen bikoteak zarete. Apustu-makinaren aurrean zaudete. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela nork irabaziko duen apustu egiten.

#### Maialen Lujanbio

Haseran dudan egin det zeini jarri marka baina zenbat medio entrebista lata beraz Ametsen alde doa nire tanta irabaz dezala ta pakea galanta.

#### Amets Arzallus

Baina Amets ez du balio gehiago ehun bat euro sakelan beraz txanpon frango nik dena Maialenen alde dut emango Ametsk failatzea neure esku dago.

#### Maialen Lujanbio

Baina Amets ez du hainbeste eskasi gaizki egin nahi eta baietz ondo hasi promesa da oraindik beti kasi kasi gutxi gastatu eta asko irabazi.

#### Amets Arzallus

Nik apustu hauekin ezin dut ba segü Ametsk isuri du hainbeste izerdi sei hilabete koban lan eta energi gero zertarako ta

bi euro ta erdi.

#### Maialen Lujanbio

Txoakeiak utzita apustura goazen zenbat atrebituko zera zu botatzen? denak ondo dabitza zaila da asmatzen Egaña zegonean errezagoa zen.

#### Amets Arzallus

Ez duzu ondo egin hori aipatzea egia da nik nahiko nuke kantatzea Egaña ezarra zela bai kaka letxea nik azken txapelketan galdu nun etxea.

### Kartzela

→ Hitza emanda. Bederatziko motzean: Altxoa

Haur nintzela banuen aurpegi itzala jakin nere sendagai beti ama zala haren usai goxoa ta haren kresala amaren ahal da unibertuala goxoa apala ta zabal zabala ez dut inoiz ahaztuko zure magala.

→ Itzultzeko garaia da.

Gaztea nintzen garaian kalean beti mobida ta poliziak eraman ninduen presondegira ta gero handik ihesi berriro ere argira nere bizitza guzian izkriba eta izkriba liburu bat untiak lez joan liteke urrutira lehen liburuen baitan itzultzen nintzen herrira orain nere liburua nerekin joanen dira.

Hegazkin baten barruan itzuli naiz herriraino lehen poemetak hitzak ziren hilkuxta ta laino orain hoiak utzi ditut ta sentitzen naiz hain ñaño plazan hor daude hiru zahar ta beste bi andereño dexente zahartu da baina ama bizirik daukat ño! zuzen zuzen itzuli naiz bere besoetaraino poema ederragorik ez dut idatzi gaurdaino.

Ta orain komeniko da atzeruntz begiratzea nun barna ibili naizen ez dut nahi esplikatzera baina bai hango jende ta bizitza deskribatzea arriskutsua zenean nere itzalaren atzea jende askok erabaki zuten ni aterpetzea nere gogoan zaudete bai bata ta bai bertzea beti izanen zarete nere bigarren etxea.

## 08 Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala

## Laburbilduz...



## Analisisa

Josu Goikoetxea

Zer lan nekeza igandean bizizian genuena testu mengel honetara ekarzte. Ezin egoki azaldu BECeko hunkidurak eta hotzikarak, sabai jotzeak eta zapuzaldiak berba apurrotan. Baina halako sentipen sakonak hitzez ezin direla azaldu dioen maximo faltsua eta koldarra denez, saia gaitezen.

Hasteko, abisu bat: ez nuen saioa modurik egokienean bizi izan (telebista eta), baina uste dut goizean giroa hotz samar egon zela eta kosta egin zitzaiola berotzea. Goizeko liturgia ederrak, agur sentituek eta hemengaudismoak lanbro pixka bat ezarri zuten han bildu gintuen arrazoia gainean: bertso lehiaketa bat da BECekoa. Inpresioa dut askori nagia handia eman ziola elikagaien bankuan sartzeak. Era berean, uste dut arratsaldeko lehen ariketa, hamarrek txikikoa, umoretik bideratuz gero, saioak irabazi egingo zuela.

Hau ez da kritika, hausnartzeko puntua baino. Gai-jartzaileentzat goresmena baino ez dut, iganderrako gai-zerrenda aparta prestatu zutelako, gairen bat edo beste kenduta (Hodei Egiluzen gaia bereziki). Zorionak taldeari txapelketan egindako lanagatik.

Saioa bikaina izan zen.

Bereziki poztu ninduten Igor Elortzaren eta Aitor Mendiluzeren lan ederrek. Batak zeharkaldi luzea egin behar izan du berriz ere bertso gintzaren TOP ofizialean egoteko (niretzat, Tolosan egin zuen saioa txapelketa honetako onenetakoa izan da, onena izan ez bada). Besteak txapelketa makalari buelta eman dio eta finaleko lanik distiratsuen eman zigun, seiko motzean egindakoa, hain zuzen.

Zoragarri Maialen Lujanbio; batez ere goizeko kartzelan gusatu zitzaidan. GO-ZA-ME-NA. Eta gustatu zitzaidan baita ere hain bertsolari bikaina bertso bakoitza borrokatzen ikustea, behetik gora eginez. Igandean bertsolariak bizkarrean eraman zuen txapelduna aldapan gora. Buruz burukoan, tentsioak askatuta, onena izan zela esango nuke.

Txapeldun berriari buruz, zer esan. Goizean egin zuen saioa ikaragarria, memorabilia izan zen. Bertsosaldi on guztietan izan

zen Amets, Colinarekin zortziko handian, Maialenekin txikian, puntu erantzetan (Mandalarren gaia ere alde; txapeldunen zortea), seiko motzean eta, ai, kartzelako lanean. Kontrakorik ere entzun dudun arren, niretzat lan biribila osatu zuen, hau zu zail eta arriskutsu batetik abiatuta (Gernikakoa ekarri zidan gogora). Ez dezagun ahantz bat-batekoaz ari garela, ez Prousten literaturaz. Arratsaldean pittin bat behera egin zuelakoan nago, beti ere goi-goi mailan. Txikikeriak, dena den: bikain. Arzallus.

Txapeldun gaztea dugu eta, akitizen ez bada, oraindik onena

emateko du. Zorionekoak gu. Zorionak, Amets.

Finalean puntuetan beherago geratu ziren hiru + 1 bertsolariak aipatu nahi nituzke azkenik.

Pena eman zidan Sustraiak finalean gehiago luzitu ez izanak, finalaurrekoetan bera izan baita onenetakoa, ez bairik gabe. Baina egun bateko zoria ere bada finalekoa. Ea hurrengoan.

Bakarkako txundigarriak utzi zizkigun Sarriegik, baina ofizioen ezkutaketan ibili zen irudipena dut. Aukeran, nahiago Oiarzungo bertsolari agintzailea,

hasi eta buka.

Beñat Gaztelumendi zorion-

tzea besterik ez dago egin duen txapelketagatik. Domekan ale ederrak utzi zituen; beude etorriko diren abiapuntu gisa.

Eta Iturriagari, berriz, hau bada egingo duen azken txapelketa, eskerrik asko. Iparrizarra zara askorentzat. Niretzat, urrutigabe. Plazan ikusiko dugu elkar. (BTW, arratsaldeko bakarkako bikaina. Balentria, hain gai zailarekin).

Eta kito. Ederra izan da aurtengo txapelketa baina nahikoa da. Laster bertso-afari bat dut Xabier Amurizarekin eta Jon Maierekin, eta gai bakar bat ere ez dut pentsatu oraindik. Ea...



Amets Arzallus Joanito Dorronsorekin haketan, haren eskuetatik jasotako txapela jantzita. LUIS JAUREGALITZO / ARP

## Oroitzapenak antolatzen



## Analisisa

Gorka Azkarate

Bertsolari Txapelketa Nagusia lau urtez behin jokatzen da, eta adinean poliki-poliki aurrera goazenok final mordoak ikusi eta entzun ditugu zuzenean dagoeneko. Aitor Sarriegik esan zuen berak oroitzapenak «txapelketa» antolatzeko joera duela eta niri ere antzeko zerbaite gertatzen zaidalakoan nago. 89ko finala izan zen zuzenean ikusi nuen lehenengoa (Jon Lopategi irabazi zuena). Sebastian Lizasok bota zuen «azken arnasa eman nahi nuke / itsasoari begi-

ra» hura iltzatuta geratu zitzaidan oroimenean betirako (momentuan ez nintzen negar egiteko urrun ibili, artean mutiko koxkorra...). Txapelketa horren aurrekoaz, oroitzapen lausoak dauzkate. Gogoratzen dut Jon Sarasua oso gazte bat, telebistako albistegiaren finalerako sailkatu zela eta adierazpenak egiten, adibidez. Baina ezer gutxi gehiago.

Hortik aurrera, bertsoen munduan poliki-poliki murgiltzen joan ahal, gertutik jarraitu ditut txapelketa guztiak. Eta ikusten dut Unai Iturriaga, adierazpen askatasunaren aldeko kamixeta soinean, artean mutil gazte, 1993ko finalean. Eta Aritz Lopategi, «Jokin Sorozabal, eta Egaña «irrifarra» hitzari botatuko bertsoa, eta Euzkitzeren dotorezia... Hurrengo lau urteetan kolpean (1997), belaunaldi berriko ordezkari gehiago igo ziren finaleko

oholtzara, Jexuxmari Irazu, Jon Maia eta Maialen Lujanbio. Iturriaga ere bertan zen, noski, Aritz Lopategirekin batera. «Batzutan da argia / bestetan astuna...», Egaña «burua» deskribatuz botatuko bertsoa historiako onena izango al zen? Auskalo, onenetakoa bai, behintzat; perfektuenetakoa. Final hartan kantatu zuen bertso hura, Jon Maiaren «abuela» ezagutu genuen egun berean...

Belodromoko azkeneko finala 2001ean jokatu zen, Egaña versus belaunaldi berria (Lizaso bere bertso-lagun-dorre-bikiak ez zuen kantatu). Tartean Sustrai Colina oso gazte bat, baina ez Amets Arzallus, finalaren aitean geratu baitzen. «Kaixo Maialen zer moduz / oroimena daukat zuzan». Maialen Lujanbio pletoiriko bat buruz burukoan, baina Egaña ezariak hirugarren txapela burura... Eta 2005ean BEC-era jauzi, «ejem», «hiru ta hiru da hiru», Egaña eta Iturriaga buruz burukoan, final gogoangarria. Baina berriz ere Egaña nagusi. Tetra txapeldun. Garaitzen. Orain lau urte, osera BECera bisita, Egaña azken finala izango zena jarraituz. Maialen Lujanbio eta

Amets Arzallus buruz burukoan, emozioa, bertso ikaragarriak... eta Maialen Lujanbio nagusi, errelebo modu ederrean irudikatuz, Egaña bera oholtzara zela (historian lehen aldiz emakumezko bat txapeldun).

Eta aurtengoaz, zer gogoratu dugu? Norbaitek esan zidan, «aurtengo whatsapp-en finala izan da». Neronek behintzat, aitor dezadan, zientoka bidali nituen saioan zehar, eguerdian mugikorren batera berkargatu behar izateraino. Inguruko lagunekin ez ezik saioa jarraitzen ari zirela banekien beste ezagun askorekin sentipenak partekatu behar horretan kateatuta jarraitu nuen saioa. Eta zer nolako saioa. Titular handiek nabarmendu dute historian lehenengo aldiz Iparraldeko bertsolari batek jantzi duela txapela, eta hala da. Baina ez dugu horregatik bakarrik gogoratuko final hau. Final hau gogoratu dugu Amets Arzallusek saio ikaragarria egin zuelako, hasi eta buka. Final hau gogoratu dugu Maialen Lujanbio bere beretik asko eman zuelako, nahi beste (lagin bat aukeratzearen buruz buruko bakarkako lehenengo ber-

tsua aukeratuko nuke agian), Igor Elortzak saio bikaina egin zuelako (bertsolari izan ez balitz erloju-gilea izango zen seguru asko, hori da hori zehaztasun milimetrikoa bertsoak betetzeko orduan), Aitor Mendiluzek aukieratik aitzatu gintuelako behin, berritan, hirutan, Aitor Sarriegik hautu ausartak egin zituelako ariketa bat baino gehiagotan (goizeko bakarkakoan, kasu), Unai Iturriagaren txapelketa bateko azkeneko saioa izango zelako ziur asko («datorrena datorrela / hiltzeko egun ederra da»), Beñat Gaztelumendi bere ibilbide oinarroan beste kokka bat egin zuelako gora eta Sustrai Colinak txapelketa bikain bati bukaera ederra eman ziolako azken saioan. Baina, batez ere, bertso bikainak entzun genituelako. Nik jarraitu ditudan final berberak jarraitu dituen nire bertsozide gertukoaren hala esan zidan saioaren amaieran: «Inoizko finalik onena izan da aurtengo, beteena, osoena». Eta badaki zerbaite bertsolaritzaz... Hori bai, hurrengoan bazkaritarako ordu erditxo bat gehiago izanez gero, denok gusturago... Zorionak deniei. Zorionak, Amets!



## Iñaki Petxarroman

«Oso nekatur» zegoela aitortu zuen Maialen Lujanbio txapeldu-nordeak atzo. Egindako lanarekin pozik zegoen, esan nahi zuena esatea lortu zuelako.

**G Zer moduzko bertso biharamuna daukazu?**

**E** Atzo bukaeran oso lasai eta oso gustura geratu nintzen. Egindako lanarekin gustura eta pozik, eta nirearekin konforme.

**G Goizetik iluntzera arteko ibilbide horretan nola ikusi zenuen zure lana?**

**E** Saioa hasi berrikan oso lotuta ikusi nuen neure burua. Ez nengoen bereziki urduri, baina burua lotuta neukan, argitasun handirik gabe. Gero, oholtzan egon ahal-aste dut asentatzen joan nintzela, konfiantza hartzen, tentsio hori gaineratik kentzen, eta gero eta hobeto sentitu nintzen. Goizeko kartzelatik aurrera, eta batez ere arratsaldean, eroso, bertsoetan ondo eta azken txanpan bereziki gustura.

**G Goizean maila handiko bertsoaldiak izan ziren. Zuri kostatzen zaitzaizun saioan sartzea. Txapelak pisatzen zizun edo, beharbada, ordura arte txapelketan jardun ez izanak?**

**E** Ez dakit. Zuzenean finalean egote horri ez diot buelta gehiago eman nahi izan. Banekien baldintzak horiek izango zirela, eta ez lehen eta ez orain ez diot horri leporatuko. Ni urduri eta estu nengoe-la garbia da. Hasieran, konfiantza edo txapelketari tonua hartu arte, kostatzen zidan. Nire atzoko saioaren irakurketa orokorra eta laburra da gustura nagoela egin nahi nuena egin nuelako, eta daukadan gazi puntua da ez nuela egin egin nahi nuen bezain ondo.

**G Goizean zein saiotan sentitu zinen lotuen edo estuen?**

**E** Seguruena hasiatea kostatu zitzaidan gehien, zortziko handian. Baina, paradoxikoki, gustu-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

## Maialen Lujanbio • Txapeldunordea

«Egin nahi nuena egin nuen, baina ez nahi bezain ondo»

ra nago saio horretan esandako arrazoiekin. Egiteko moduarekin ez nago horren gustura, hor izan nuelako lan gehiago. Ideiaz ondo sentitzen nintzen, baina tolesten kostatzen ari zitzaidan. Edukiekin gustura nago, baina ez hainbeste bertsoen fakturarekin.

**G Behetik gora etorrizinen, bestee- na ere entzuten ari zinen... Arratsaldeko saioaren ondoren ikusten al zenuen zeure burua buruz burukoan?**

**E** Zaila izaten da hori neurtzea. Nik ikusten nuen erori ez nintzela egin, eta eusten saiatu nintzela. Momentu batzuetan asmatu nuela ere ikusten nuen. Beste bertso- larien saioa oso modu lanbroan entzuten da. Mendiluze oso ondo ikusten nuen. Amets nabarmen

ondo, goizetik. Beñat ere ondo. Tira, alferrik da izenak esatea. Zaila da neurtzea. Nik nahi nuen nire aukeretan ahalik eta gehien eman. Eta ahal nuena hori izan zen. Buruz buruko momentura iritsi nintzen nire eguneko momenturik onenean, lasaien eta gusturen nengoen garaian.

**G Nabari zen nolabaiteko giroa zegoela Arzallusek irabaztearen alde. Ez dakit zu jaketzen zinen horretaz eta nola eragiten zizun.**

**E** Hori zaila da esaten. Bazegoen halako giro bero bat harekikoa, baina bakoitzak saiatzen da bere lana egiten eta bere onena ematen. Jendeak berrietasuna nahi izatea, edo beste txapeldun bat nahi izatea, ulergarria da, nik ere

bizi izan dut. Eta ni saiatu nintzen nire lanean zentratzen eta nirea ahalik eta ondoan egiten.

**G Txapela ez duzu eraman beharko hurrengo lau urteotan. Horrek zer ematen dizu, atsedena edo tristura?**

**E** Tristura izango nuke ez bainintz gustura geratu nire lanarekin. Nik badakit hobeto egin neza- keela, baina hori zen egin nahi nuena. Hobeto egin nezakeen, baina herenegun ahal nuen ondona hori izan zen, eta ni gustura nago egin nuen hautua hor plaza- ratu nuelako, eta hori egin nahi nuen. Horrekin konforme nagoen, ez daukat tristurarik. Lasai eta gustura nago. Niretzat ederra izan da lau urteotan toki hori bete- ztea, eta orain gauzek beren bidea

segitzen dute, bakoitzak bere lana eta bere bidea jarraituko du. Txapelaren erantzukizuna txapelke- ta garaian asko sentitzen da, bai- na gero lau urteotan baretzen da.

**G Txapelketak lehian sartzen gaitu guztiok. Zuri galdu izanaren sentsazioa geratu zaizu?**

**E** Ez. Askotan esan dut eta topi- koa dirudi, baina horrela da, zuk zeure buruarekin daukazu apus- tua. Txapela ondorioa izan daiteke, apustua irabaztearen ondo- rioa, baina txapela ez da helburu bakarra, nik beste helburu batzuk dauzkat jarrita nire burua- rentzat, eta pentsatzen dut hor gauden bertsolari guztien artean bakoitzak apustu bat daukala bere buruarekin.

**G Egañiak, Lizasok eta zuen belau- naldiari utzi zioten txapelketaren le- kukoa, eta pixkanaka zuek arizarete beste belaualdi bati uzten. Iturria- gak iragarri du ez dela berriz lehiatu- ko. Zuk lehian ikusten duzu zeure bu- rua lau urte barru?**

**E** Gaur ez da hori esateko egun aproposa. Dena oso bero dago, neke handia dago pilatua, eta ez dut pentsatu ere egin. Baina alde batetik normala iruditzen zait zi- klo horiek gertatzea. Guk ia 20 urte daramatza txapelketan, eta benetan exigentea, konprome- titua da. Tentsio handia da zeure burua jartzea aldiro estutasun horretan, jendearen aurrean. Satis- fakzio handiak ematen ditu, baina oso gogorra ere bada. Hala, ez da harriztekoa jende bat nekaku, eta erreleboa ematen joatea. Nik, nire kasuan, ez dut pentsatu.

**G Zer moduzko txapeldun berria daukazu?**

**E** Bikaina. Bertsolari bezala izu- garria da, eta kristoren tipoa. Bere mailaren berri denbora asko zeraman erakusten, eta poz handi hartu nuen berak sari hori izateagatik. Berak izugarriko lana egin duelako eta plazera delako entzutea eta berarekin jar- dutea.

## Euskaldun zintzoen habanerak



## Iritzia

Imanol Epelde

**E**z dut kenduko pultsera. BECera sartzerakoan jarri ziguten. Lanzarote-ko hoteletan bezala. Baina ez ziguten esan noiz kendu. Ahaztu egin zitzaiz hainbeste oharren artean. Harrigarria nola bete genituen denak. «Ez erre, mese-

dez». Eta bertsolariek ere kasu egin zieten. «Ahalik eta gutxien mugitu, mesedez». Eta bati motxilatik zerbeza lata bat atez- ratzea, mugimendu debekatu eta ezinezkoa egiten zitzaion. Txalo zaparraden zain latak ire- kitzeko. Euskaldun zintzoen baladak abestu genituen. Habaneran.

Igandeko mezetara gindoazen inpresioa izan nuen. Ez formal- dadeagatik bakarrik. XXI. mende- an gordetzen dugun euskal erri- to bakarrenetakoa baita au- zolan inbidiagarri antolatutako bertso-finala, Leroy Merlin, Mc- Donalds eta IKEAk gotortutako

BEC koadrikulatuan. Terapeuti- koa da oso finala euskaldunon nortasun krisiak gainditzeko, si- nesmena indartzen du Ortzi jain- koan, taldetasuna elikatzen, ne- gar egitera eraman zaitzake eta kantuan ere jartzen zaitu. Orain zutik, orain eserita. Elkarr- i maitate dugula esaten. Orain, maita- suna da bide bakarra. Badaki- zue.

Aurtengoa halere, ederra bai baina motela iruditzen zait. Goiza ukitzeko modukoa: lodian leun, tentsioz gainkargatua. Ezusteko- rik gabe, eguna lehertuko zuen danbatekorik gabe, aurreikusita- ko gidoia idatzi zen. Irabazten

hasita ezin izan zuen Amets Lu- janbio irabazi. Ez baitago 22na egiterik jolasa baino gehiago jo- koa nagusitzen den kirolean. Nik koadrilakoekin egindako porran Beñat Gaztelumendi jarri nuen txapeldun. Ez baita notizia Ame- tsek txapela irabazi izana.

Hemendik lau urtera izango dira sorpresak. Amets ikusten dut txapela defenditzen baina gainerako guztiak berriak izango dira. Pentsio planik gabe jubila- tuko direlako aurtengo finalista asko. Beñat izan ezik. Martxa be- rean, minimalismora makurtu- tako gai tragikoek jarraituko dute 4 urte barru ere, oraindik eta

minimalago. Irudikatzen dut Amets txapela defenditzen, hitz bakarrek gaiak entzuten: «Ba- dator» edo «Bego» edo «Biz». 3 bertso nahi duzun neurri eta doi- nuan.

Edo ez. Finala jokatu daiteke neguan izan beharrean udaberri- ko hego haizetan, tragediatik bai- no komediatik gertuago, BECen izan beharrean Nafarroako Erri- berako lautadaren batean, mau- ka motzetan eta txankletetan, kartzelako lanik gabe, sarrera doan, transzendentzia guztiak kenduta, umoretik eta irribarre- tik. Serioegiak izateko tentazioe- tatik urrun.

Bitartean, euskara salbu ikusi edo ez, bizarra moztzen segituko dut. Baina ez dut kenduko pultse- ra. Beñatek txapela jantzi artean.

## 10 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala



### «Irudipena nuen, eta ingurukoek esan didate maila onean aritu ginel»

#### Igor Elortza

«Lortu nuen finala bai bertsoan, bai egun moduan bizitzearen arteko oreka». Eta agian horregatik finalean oso ongi pasa zuela dio Elortzak. «Goizez

agian kosta zitzaidan apur bat arrankatzea, baina arratsaldean, banuen gogoia Lujanbiorekin aritzeko; eta Mendiluzerekin oso gustura aritu nintzen». Bertsolarien arteko giroa ere ai-

patu du: «Bertsotarako ezin hobearen gurena, eta bazegoen oso ondo edo itzel arituko ginelako pertzeptzioa».

Saioari dagokionez, maila handikoa izaten ari zelako pertzeptzioa izan zuela azaldu du. «Nik irudipena nuen; elkarteok eta lagunak, gainera, baieztatu egin zidaten. Gero, beroarena kendu beharko zaio, baina batez beste maila oso ona izan da, nire ustez».

Txapelketan egindako lanarekin pozik dago Elortza. Finalean, ordea, eguna bizitzen ahalegindu zen, eta horrek «sormen tentsio» txikiagoa sortu ziola uste du. Mendiluzek egindako lana goratu du, bestalde.

**Testuak: Araitx Muguruza  
Argazkiak: Luis Jauregiartzo /  
Argazki Press**



### «Zuek ez duzue hau oholztatik bizi, eta ederra da»

#### Unai Iturriaga

Beste behin ere argi utzi zuen Unai Iturriagak aurtengoa izan dela bere azken txapelketa: «Inoiz ez naiz bueltatuko». Baina erabakia bera txantxetarako

gaitzat ere hartu du finalaren ostean. «Baten batek ziurtatuko balit, agian, bai, itzuliko naiz».

Duela hogeitaz kantatu zuen txapelketa nagusiko finalean, eta orduetik final guztietan izan da. BECen kantatzea izugarria dela adierazi du, eta aurtengoa ez dela salbuespena izan. «Zuek ez duzue hau oholztatik bizi, eta ederra da, benetan», esan zuen. Bide horretatik, pozik dago antolatzaileek egin duten lanarekin, eta, nola ez, entzuleekin. «Beti bezala, ondo baino hobeto portatu dira». Bereziki gogoan du Tolosan erakutsi zioten babesak (Gipuzkoa).

Txapelketa prestatzeak berekin dakarren lana gogoan hartuta, etxeokoa izan ditu ahoan finaleko saioaren ondoren. «Nire etxeko hiru loreei musu handi bat».



### «Arrastoa uzteko asmoa nuen, gogoratzeko zerbait egitekoa»

#### Aitor Mendiluze

Inoiz baino partaideago sentitu da aurtengo finalean Mendiluze. Entzuleekin partaideago, bereziki. «Azkenengo bi finaletan agian ez nuen lortu aurten lortu

dudana lehertzea, jendearekin konektatzea, eta benetan zerbait helaraztea». Goizean Igor Elortzarekin puntuka eta Amets Arzallusekin seiko motzean botatako bertsoak dauzka gogo-

an, txalo asko jaso baitzituzten bi ariketek.

Baina partaideago «lan kolektiboagatik» ere sentitu da. «Beste behin ere han izan nintzen, jendea aurre egiten, eta seguruenik txapelketa eta finala bera osatzen zuten kolektibotasun guztietatik oso gertu sentitzen nintzen».

Agurrean aipatu zuen moduan, Murgia eta Mauleko finalaurrekoetan baino saio hobeago egin zuen. Hori zen haren helburua. «Nik kanporaketetan sentsazioa nuen ez nintzela gaizki ibili, baina ondo ere ez, ez nuela ezer berezirik uzterik lortu.

Arrastoa uzteko asmoa nuen, finalean egitea gogoratzeko zerbait. Erakustea azkenengo bi finalaurrekoetako baino gehiago garelara». Goizean bete zuen helburua, eta arratsaldean ordutako bertsoak konfirmatu.



### «Beste ezer baino gehiago, sentitu naiz finalista bat gehiago»

#### Beñat Gaztelumendi

Bertsolari finalista modura lehenengoz izan zen BECen. Aurtengoa izan zuen helburu argi batekin joango zela hara: «Finalisten artean bat gehiago

sentitzea». Eta hala sentitu zela nabarmendu du: «Nire argi eta itzal guztiekin, gaur beste ezer baino gehiago, sentitu naiz beste bat gehiago». Gustura dago finalean egindako lanarekin, eta ez da gutxiagorako, maila ona erakutsi baitzuen. Eta txapelketa osoari begiratu azkar bat botata, egindako txapelketarekin ere «oso pozik» dagoela azaldu zuen. Bidean lagundu duten lagunak gogoan izan ditu.

Horren ondotik, ahontan hartu zituen BECeko finalak, horren ondo ateratzeko egin behar den langintza osoa. «Eskerrik asko boluntarioei, musu truk egin duten lan guztiagatik». Entzunleentzat ere esker hitzak izan zituen, finalaren ondoren egindako adierazpenetan. «Entzuzteratza etorri diren 13.400 laguneri ere eskerrak eman nahi dizkiet».



### «Nik, behintzat, ez dut orain lau urteko tentsio girorik nabaritu goizean goiz»

#### Aitor Sarriegi

Finala hasi aurretik duela lau urte sumatu zuen tentsio giro hura ez zela egon dio Sarriegik: «Nahiko era naturalean bizi izan gurena finalean aurreko tar-

tea, eta baliteke lan kolektibo txukuna egiteko eragina izatea». Baina horregatik ez zen errazago lehertu giroa. «Baldintza gehiago ere behar direla uste dut giroa lehertzeko; eta

jendeak hasieratik izan zuen jasotzeko jarrerak eragin zutenagoa izan zuela esango nuke».

Bertsoa egiteko garaian «normalean baino traketsago» aritu zela dio, zenbait ofiziotan bidea ez aurkitzeraino. Hala ere, ale politak utzi zituelakoan dago: «Marka pertsonala jartzan saiatu naiz. Hotzean begiraturata beroan baino gusturago nago egindako lanarekin».

Tentsio puntu batekin, baina urduritasun handiegirik gabe joan zen finalera. Hala ere, «ausentzia» moduko sentsazioa izan duela uste du. «Eztarria behartu samartuta izateak ere kezka sortzen zidan». Behin bertsoan hasita, ordea, desberdina izan zen. «Bertsotan hasi arte ez da jakiten zer aldarde duzun, eta, askotan, sentsaziorik okerrekin irten daitezke saiorik onenak».



### «BECen bildu zirenek exhibizio bat eman zuten, eta eskertzekoa da»

#### Sustrai Colina

Balorazio zehatz bat egin aurretik, berriz ere finala entzun nahiko luke, Colinak. «Nahiago dut balorazioa beroan baino, hotzean egin».

Hala ere, gogoratu du zortzi bertsolarien artean giro ona zeukatela. «Askotan, txapelketak norbera bere buruila sartzen du, baina garrantzitsuagoa da gure arteko giroa, hori baita gure oinarria». Hori izan zen, finala ongi aterata izanaren giltzarrietako bat.

Eta beste aldean entzuleek osatzen dute. Ohi bezala bikain egon zirela gogoratu du. «Atzo BECen bildu zirenek exhibizio bat eman zuten, eta hori eskertzekoa da». Azken batean, hori baita saio baten arrakastaren arrazoiak. «Gu bueltan jasotzen dugunetik elikatzen gara». Horregatik, ohore bat izan da Colinaentzat beste behin ere hango partaide izatea. «Pribilegio handi bat bezala sentitu dut gaur hemen egotea». Antolakuntzari ere eskerrak eman dizkio, egin duen lan guztiagatik.



13.500 ikuslek jarraitu zuten zuzenean finala. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Hau ez da txio bat; 140 karakteretik gora ditu. BECen entzundakoak ere ez ziren txioak, baina bazuten neurria: oholtza gaineko zortziko handia.

**Amagoia Iban** Barakaldo

**A** mets txapeldun!!!!». Hemeretzi karaktere. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak bazuen irabazlea. Emotikono erraldoia bihurtu zen BEC. «aitarena den txapel hau» amari eskaini zion Arzallusek; duela lau urteko argazki bertsua osatuz beste zazpi finalistak, atzean elkarri iladan helduta. Aldaketa nagusi bat zegoen, ordea: 2009ko txapeldunaren ordeztar zegoen kantari.

A, C, E, G, I, L, M eta S. Zortzi karaktere. Finalista bakoitzaren abizenaren hasierako hizkiak; eta egunaren hasierara buelta bat. Inurritegia BEC, final-abiatze ordua baino askoz lehenago bizi-bizia. Andoni Egaña 09:55ean prentsa gunean, telebista kameraren aurrekoaren zain, oholtza gaineko nostalgiarik gabe lanean. Eta 11:00 jota eta finalistak irteteko artean. Atzerriko bertsolarien-tzako egokitutako balkoian, Galesko eta Kataluniako banderak esekita. Halako batean, Saroi Jauregi aurretik dutela, eguneko zortziko bertan. «Gladiadoreak dirudite». 21 karaktere. Pasielloetan barrena doazen finalistei zutik eta txaloka egin zaien harrera azaltzeko. Eta behin oholtza gainean, banan-banako aurkezpena egitean, BEC orroka. A-ren izena esaterakoan, nabarmen gorago bolumen.

«Hasi da norgehiagoka». 20 karaktere. L eta M lanean hasten le-

henak. C eta A ondoren, E eta Ssegidan, I eta G azkenak. Oholtza gaineko karaktere dantza gertatu bitartean, harmailtako eta pista-ko aulki iladetako askoren telefonoetako teklatuak sutan. Txioa BEC; kantari bertsolariak. Bakoi-tza bere neurrian.

«Egoerak beste aldean jarri zaitu». 32 karaktere. A-ren eguneko lanik txalotuenaren txanda, guardia zibil torturatzailearen rolean Espainiako Auzitegi Nazionalan. L ere gora-gora, lehenengo aldiz utzi duten maitalearen

Bazkalorduan A segurutzat jotzen zuten ikusleek arratsaldeko buruz burukoan

Emandako hitza azkeneraino bete zuen L-k, eder eta idor kantatuz

erreminetatik kantari. S, berriz, bere biktimaren alargunari eskua eman diotenaren kontalari.

Bazkalaurreko azken lana eta zapore oso gozoarekin jendea mahai bila egindako bidean. Kinien txanda. A buruz burukorako bidean denen ustean; bigarrena zein izan ote daitekeen, zalantza gehiago: L batzuek, E besteez, M ere oso dotore dabilela askok. «Asko gustatu zait Amets; Maialen eta Igor ere bai», Iruñeko Anak. «Kalitateko saioa ikusten ari gara. Maialen ikusi dut ondo-



Jendea oso garaiz hurreratu zen BECera. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



Bertsolarien aldeko pankartak harmailetan. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



Bertsotzaleak olatua egiten. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

en kartzelakoan», Durangoko (Bizkaia) Maitek. «Orain dela lau urte hotzagoa izan zen goiza, nik uste», Gasteizko Anak. Azpeitiko (Gipuzkoa) Pakok, berriz, gai batzuen umore puntua eskertzeko dela. «Txapelketa oso serioitik joan da».

Konturatzerako, arratsaldeko saioa hasteko ordua. Atzera esertzera. Eta finalean ikusleen artean ere sortu ohi den tentsioa askatzeko olatuak. Gladiadoreak berriz, agurrak eta lanera berriz. E eta L lehenak. Segidan, letra konbinazio guztiak. Bertsu on asko; entzule denak esker oneko. «Horra horra gure M». 26 karaktere. Olentzero rolean, E Bizarzurirekin puntuka lehian. Barre algarak. Finalak aurrera egin ahala are gehiago eskertzen den umorea.

### ‘Déjà vu’

«A eta L». Zazpi karaktere. Buruzburukoa. Pailazo bisitari, bikotekide apustulari binaka; eta altzoaren kantulari, itzultzeko garaia duen hori banaka. «A Sarri Sarri Sarri». Hemeretzi karaktere. Joseba Sarrionandia etxera bueltan. BEC orroka. «L emandako hitza azkeneraino betetzen». 37 karaktere. Eder eta idor. Altzoa helduen behaska, immigrantea hazka. Bekatu duenean, jendea elkarri begiekin galdezka.

«Amets txapeldun!!!!». Hemeretzi karaktere. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak badu irabazlea. Emotikono erraldoia bihurtu da BEC, berriz ere, «aitarena den txapela» amari eskaini dio Arzallusek; duela lau urteko argazki bertsua osatuz beste zazpi finalistak, atzean elkarri iladan helduta. Telefonoarekin egindako eta zabaldutako argazkiek bete dute sarea.

«A, C, E, G, I, L, M eta S». Zortzi karaktere. Zortziko handia.

## 12 Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala



IDOIA BERATARBIDE

# Amets Arzallus Handia



Jon Martin Etxebeste

**H**erri batekoa da Amets, baina herri askotakoa. Akaso horregatik da herriarena. Hendaia, Zumaia, Goiatz, Lekeitio... asko dira bere *bihotzgrafian* azaldu behar luketen herriak.

1983an jaio zen Amets, baina urte askotakoa da. 80ko hamarkada hasierako belaunaldiaren ale distiratsuen da, baina baita Joxe Agirrearen bertsokeraren segida ere. Horregatik, akaso, bere bertsok adin guztietara iristeko adinako indarra dute.

Artean haur bat baino ez zela eraman zuen aitak eskutik bertso-eskolar, eta berehala ikasi zuen bertsoan. Aitarenak ditu bertsoa eta keinuak. Elkarren *hizpiluak* dira Jexux eta Amets. Arzallus bezain Antia ere bada, ordea, eta bederatziko txikian egin zion lehen omenaldia amari finalean: «ez dut inoiz ahaztuko / zure magala», kantatuz. Bigarrena, txapela buruan, «aitarena den txapel hau / eskaintzen diot amari» esanda. Bi arrebak ere aipatu zituen bertso berean eta haietako zaharrenarekin (Itsasorekin) ikusi genuen lehenengoz kantari, 1992ko Eskolarteko Txapelketan. Amets ñaño bat zen hura, Sustrairen aldamenean kantari orduan ere. Orain bezain irmo; orain baino tikiago, masailgorriago.

Kanbon Seaskaren Kolegioan eta Baionako Lizeoan ikasia da. Bokazioz eta ofizioz, kazetaria. Leioan, unibertsitatean ikasten zuen garaietan, ikasle konprometitua izan zen. Kazetari moduan, zorrotza eta apetsua. Ondo hautatutako lanak egin izan ditu eta hautatutako lanak ondo egin.

Hizlari ona da. Patxadaz eta zehaztasunez mintzo da, sobranteko hitzik gabe. Noble eta garden.

Pilotan eta futboleko oso trebea izan da txikitatik eta ondo koxkortu arte, bertsolari edo futbolari, zer izan nahi zukeen galdetuta zaila egingo zuen. Kirolari sena du eta galteza ez zaio gustatzen. Ezertan ez. Eta horregatik ere irabazten du.

## Txapela amets

1993an joan zen lehenengoz final handi bat ikustera. Andoni Egañaren lehen txapela izan zen orduko, Unai Iturrigarren lehen

Erraz kantatzen du, berez-berez, hizketan bezala; baina lan asko egin behar da freskotasan hori transmititzeko. Ikasle zintzoa izan da beti Amets. Orain maisuen artean kantsakratu da

txapelketa... baina Amets ez zen txapelketatan entzuleen aulkian egoteko jaio.

Lehian eroso sentitzen da: Eskolarteko Bertsolari Txapelketetan markak hautsi zituen, Nafarroako Txapelketan lau aldiz gailendu zen eta hiru aldiz Iparraldeko Xilaba txapelketan.

2001eko Txapelketa Nagusian parte hartu zuen. Bere ibilbidean bidaide izan duen Sustrai Colinarekin batera txapelketa bikaina osatu zuen, baina urruñarrak izan zuen finalean debutatzeko pribilegioa. Ordurako, Iparraldearen simbolo bilakatuak ziren biak, eta plazaz plaza zebiltzan. 2001eko arantza hura akuilu bihurtuta jarraitu zuen prestatzen.

2005ean, orduan bai, finalera iristea lortu zuen, eta 2009an, txapeldunorde izatea.

Herenegungo saioan BECeko entzuleriaren faborito zen Arzallus. Izartuta iritsi da finalera. Izartuta eta itzarrik; eta, hala ere, Amets egin zuen.

Ez da bakarrik iritsi tontorrera. *Herrigarria* da Ametsek entzulearekin lortzen duen konexioa. Erraz kantatzen du, berez-berez, hizketan bezala; baina lan asko egin behar da freskotasan hori transmititzeko. Ikasle zintzoa izan da beti Amets. Orain maisuen artean kantsakratu da.

Bihotz handi bat kantari, hori da Amets. Kantatzerakoan, begiak ixten ditu, barrura begiratzeko, eta barruan herri bat ikusten du.